

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO ARGITALPENAK  
MONOGRAFIAK  
EGIAZTAPEN-ZERRENDA**

Original bat aldizkariaren erredakziora igorri baino lehenago, egiazta ezazu egiaztapen-zerrenda honetan dauden beharkizunak betetzen direla.

Originalak gehienez ere 600.000 karaktere izanen ditu, zuriuneak barne eta oharrak, koadroak, grafikoak, bibliografia eta eranskinak barne hartuta (400.000 izanen dira baldin eta lanarekin batera material grafiko ugari gehitu bada).

Testuan ez da agertuko egiletza identifika dezakeen erreferentziarik.

Testuak bat egiten du Vianako Printzea Erakundearen estilo-arauetan laburtutako baldintza estilistikoekin.

Irudiak eta grafikoak EZ dira testuan txertatu, eta testuan non kokatuko diren adierazi da numerazio korrelatiboarekin.

Originalari irudiak erantsi zaizkio, behar bezala identifikatuta numerazio korrelatiboaren bidez, eta bakoitzari emandako zenbakia eta testuan agertuko dena berberak izanen dira.

Irudiak "tiff" edo "jpg" formatuetan aurkeztuko dira, gutxieneko erresoluzioa 300 ppp. dutela.

Aparteko dokumentu batean zerrendatuko dira oin-oharrak, argazkien numerazio berarekin, eta nondik hartu diren adieraziko da eta, beharrezkoa bada, haiek erabiltzeko baimen idatzia erantsiko da. Irudiak Internetetik hartu badira, haien erabilera librea dela dioen orria erantsiko da.

Artikuluak taulak eta grafikoak baditu, bakoitzarekin Excel edo LibreOffice fitxategi bat gehituko da, bereizitako orri batean eta testuan emanen zaion zenbaki berarekin, korrelatiboki ordenatuta. Taulak eta grafikoak "jpg" formatuarekin aurkez daitezke, baina maketazioan beharbada fitxategi originalak aurkeztu beharko dira.

Sartu da egile bakoitzeko curriculumak, gehienez ere 800 karakterekoa zuriuneekin.

Liburuaren edukiaren erreseina laburra gehitu da, gehienez ere 800 karakterekoa, zuriuneak barne.